

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKO (PUBLIZITATEAREN ONDORIOETARAKO)

<u>Doktoratu aurreko modalitatea</u>	IKERTZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA (DOKTORATU AURREKOA)
Proiektuaren kodea	P1
Izenburua	Nola eragiten dute itsas konbergentziako eremuek arrain pelagikoen banaketan?
Ikastetxea	AZTI, Pasaia (Gipuzkoa)
Saila/Zuzendaritza/Arloa	Itsas Ikerketako Unitatea
Ikerketa-taldea	Itsas teknologiak/Arrantza-teknologia jasangarriak
Proiektuko tutorea (k)	Ivan Manso/Ainhoa Caballero
Laburpena	<p>Zirkulazio ozeanikoak garraio- eta atxikitze-patroiak ditu, eta horiek eragina dute espezie pelagikoen banaketan beren bizi-zikloaren hainbat fasetan, bai eta bizi diren eta elikatzen diren ingurune baldintzetan ere. Beraz, gure itsasoko prozesu ozeanografikoen ezagutzan sakontzeak espezie horietan duten eragina ulertzen lagunduko du. Tesia egiteko, ikasleak artearen egoera berrikusiko du, prozesu horien ezagutzan sakontzeko, eta ozeanografian erabiltzen diren datu-base eta metodologiek ino hituko da. Ondoren, ikasitakoa praktikan jarriko du, prozesu horien ezaugarri buruzko ikerketarekin jarraitzeko. Euskal kostaldeko ozeanografia operazionalaren sistemak (EuskOOs) esperimantazio-esparru bat eskainiko dio, gure kostaldeko informazio ozeanografikoa eskainiko baitio. Ingurumen-aldagaien datuak izango ditu (korronteak, aldagai hidrografikoak eta biogeokimikoak), behaketa-plataforma desberdinetatik lortuak, hala nola satelite ozeanografikoetatik, in situ eragiketa-plataformetatik (HF radar-sistema bat barne) eta ibilgailu autonomoetatik (gliderrak). Ingurunea ezaugarritu ondoren, ikaslea prozesu ozeanografiko horiek hainbat espezie pelagikotan duten eraginaren ebaluazioan oinarrituko da. Horretarako, arrantza-baliabideak ebaluatzeko urtero Bizkaiko golkoan egiten diren kanpaina ozeanografikoetan lagindutako arrantza-espezieen banaketari buruzko datuak izango ditu.</p> <p>Doktoregoaren amaieran, ikasleak ozeanografiako hainbat alorretako ezagutzak eskuratuko ditu, datuen analisisian, programazioan, estatistikan, datuak bistaratzean, kanpainen diseinuan eta abarretan trebetasunak garatuko ditu. Era berean, bere tesia diziplina anitzekoa denez, ikerketa-zentroaren barruko hainbat lantalderekin elkarlanean arituko da, baita estatuko eta nazioarteko beste ikerketa-zentro batzuekin ere. Beste zentro batzuetan egonaldiak garatzea ere funtsezkoa izango da ikaslearen ikerketa-gaitasuna garatzeko.</p>
Bestelako informazioa	<p>Itsas Zientzietako, Ingeniaritzako, Matematikako, Fisikako, Biologiako edo Ingurumen Zientzietako unibertsitate-titulua behar da, edo proiektuaren gaiarekin lotutako ezagutzak eskaintzen dituen beste edozein titulu edo ibilbide akademiko. Era berean, ingelesa menderatu behar da.</p> <p>Programazio zientifiko-estatistikoko lengoaien ezagutzak baloratuko dira (MATLAB, Python, R edo antzekoak), baita ozeanografia fisikoko eta datu ozeanografikoen eta estatistikoen analisisiko oinarri bat ere. Izangai ideala malgutasunez moldatzen da egoera eta erronka zientifiko-teknologikoetara, ekimen- eta proaktibitate-maila handia du konponbideak bilatzeko, eta gai da bere ezagutza-eremuko ezagutzak beste eremu batzuekin konbinatzeko, soluzio berritzaileak identifikatu eta garatzeko. Bidaiatzeko prestasuna (egonaldiak, kongresuak...). Ikerketa zientifikoarekiko motibazio handia. Proposatzen den tesi-proiektuarekin lotutako gaien ikerketan izandako esperientzia baloratuko da.</p>

Harremanetarako datuak

imanso@azti.es; acaballero@azti.es